



HKEE-REN PRENTSA OHARRA, GASTEIZKO UDALAREN 2006-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Vitoria-Gasteizko Udalaren fiskalizazio txostena mamitu du. Txostena aho batez onetsi dute HKEEren Osokoaren kideek.

Udalaren fiskalizazio txostenak legezketasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu aurrekontu, sarrera, zorpetze, langileria, diru-laguntza eta administrazioko kontratazioaren alorrean; baita kontuen aurkezpenarekin lotutako kontularitzako alderdiak ere. HKEEren lanak Udala bera ez ezik, bere Erakunde Autonomoak eta Sozietate Publikoak ere besarkatzen ditu. Halaber, Eusko Legebiltzarraren Ekonomia eta Ogasun Batzordeak hala eskatuta, 4 espediente fiskalizatu ditugu.

- Hiri Antolamendurako Plan Nagusiaren (HAPN) Barne Berrikuntzarako 3. Plan Berezia (BBPB),(Zezen Plaza).
- 4 zk.ko BBPB aldatzea (José Mardones).
- Vital Kutxa eta Udalaren artean ondasunak trukatzeko asmoen protokoloa
- Vitoria-Gasteizko auditoriuma

Udalaren legezketasunari buruzko atalean, Epaitegiaren iritzia aldekoa da udalaren ekonomia-finantza jarduerari ezargarria zaion arautegia betetzeari dagokionez; nolana dela ere, hainbat ez betetze aipatu ditu.

Langileria dagokionez, HKEEk adierazi du Udalak bitarteko 17 funtzionario izendatzeko erabilitako hautaketa prozedurak ez dituela berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak bermatu. Berebat, Udalak ez du indarreko arautegia gorde errelebo eta ordezkapen kontratuekin erretiro partzialeko egoeran zeuden 5 langilerekin gauzatutako jokamoldeak.

Administrazioko kontratazioaren esparruan, txostenak 1,4 milioi euroko hainbat aldaketa jasotzen ditu, gauzatu ondoren onetsi direnak; honek Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Testu Bateratua urratu du.

Bestetik, aldeko iritzia azaldu du HKEEk Kontu Orokorraren aurkezpen eta edukiari dagokionez eta zalantza egoera erakutsi du 2005 eta 2006ko urteetako hegal, tribuna, errotulu, eta abarren kontzeptuko tasaren likidazioetatik batzuk errekurrituak daudelako



Administrazio-Auzibideko Jurisdikzioaren aurrean; halaber, salbuespenak egin ditu ez Ibilgetuak ez horri dagokion ondasun zerrendak ez dituztelako udal ondasun guztiak jasotzen eta Likidazioan 12,2 milioi euroko konpromiso-kreditu bat barne hartu ez delako. Honez gain, Epaitegiak 06.12.31ko Diruzaintza Geldikina 26 milioi euroan murriztu eta funts propioak 118 milioi euroan gehitzen dituzten doiketak proposatu ditu.

Udal erakunde autonomoei dagokienez, HKEEren iritzia aldekoa da hemen ere, nahiz eta adierazten duen Erakunde Autonomoek ez dutela aurrekontuko plantilarik eta erakunde jakinen bestelako gabezia zehatzak, guztiak ere langileen legeriari dagozkienak.

Udal sozietate publikoei dagokienez, txostenak ezargarria den arautegia betetzeari dagokionez ere aldeko iritzia plazaratu du, iritzi orokor hau salbuesten duten langileria eta kontratazio ataleko hainbat alderdi azpimarratu dituela.

Fiskalizatu diren berriazko espedientei dagokienez, Zezen Plazaren kasuan HKEEK uste du ezinezkoa izan dela kontratazioaren alderdi ekonomikoen ikuspegi globala eskuratzea, izan ere, espedienteak ez baitzuen aprobetxamenduak baloratzeko txostenik eta Auditoriumaren espedientean, berriz, Udalaren alderdi politikoen arteko gorabeherei leporatzen die proiektuak aurrera ez egin izana eta horrekin batera, egindako gastu osoaren zati bat, 2,6 milioi eurokoa, alegia.